

# EUSKAL NEURRI SINTAGMEN AZTERKETA BATERAKO: ZENBAT X, ZENBAT X-AGO, ZENBAT X *GEHIAGO* ...

Patxi GOENAGA

Lan honetan zenbatzaileez eta zenbatzaileok agertzen diren zenbait egituraren azterketa egin nahi da. Batetik, izen sintagmaren barnean ager daitezkeen neurri sintagmak aztertuko dira eta hauek dituzten ezaugarriak, kokaguneak eta debekuak.

Bestalde, neurri sintagma hauen antzekoak adjektiboen inguruan ere agertzen dira, konparatiboetan bereziki. Hauetan ‘koska’ bat gertatzen da eta hau da neurri sintagmek neurtzen dutena. Esamolde hauen sintaxiaren azterketara hurbiltzea da lan honen helburua.


## 1. ZENBATZAILEAK IZEN SINTAGMAN

Abney-k (1987) bere proposamena luzatu zuenetik, hizkuntzalaritzan erabat onartutzat ematen da ohiko izen sintagmak, egiatan, ez direla izen sintagma, alegia ez direla izenaren islapen, determinatzailearen islapen baizik, eta, horrenbestez, determinatzaile sintagma. Bestalde, artikulua gainera zenbatzaileei ere leku egitearren, DS-ren eta IS-ren artean beste islapen batzuk badi-rela onartzen da, bereziki Zenbatzaile sintagma dei genezakeena. Honen ardatza zenbatzailea izango litzateke. Dirlako zenbatzaile sintagma hauek zenbatzaile soilaz osatuak egon daitezke (numeral, esaterako), edo sintagma konplexuagoak osa ditzakete (neurri sintagmak deitzen ditugunak, adibidez). Gainera, batzuek izen sintagmaren ezker aldean agertu behar dute eta beste batzuek izenaren eskuinaldean:

- (1) a. [<sub>DS</sub> [<sub>ZenbS</sub> BOST] gizon (-ak)] / [<sub>DS</sub> [<sub>ZenbS</sub> BOST KILO] irin]  
 b. [<sub>DS</sub> Gizon [<sub>ZenbS</sub> BAT]] / [<sub>DS</sub> Irin [<sub>ZenbS</sub> PIXKA BAT]]

Euskararen kasuan, Artiagoitiak (2004) aldarrikatzen du euskaraz ere IS-ren eta DS-ren artean badela delako Zenbatzaile sintagma hori. ZenbS horren kokagune desberdinaren berri emateko, berriz, ezker aldean agertzen direnak ZenbS-ren espezifikatzaile gunean sortzen direla dio. “Sintagma itxura” omen dutenak (*honenbeste*, *hainbat*, *bost litro*, *kolkoa bete* ... modukoak) dira ezker alde horretan agertzen zaizkigunak. Numeralak ere, *bat* eta *bi* (hau aukeran) izan ezik, ezkerrean ematen ditugu. (2)ko sintagmen egitura (3)koaren antzekoa izango da:

- (2) {Honenbeste / hiru / hiru litro} ardo  
 (3)



Artiagoitiak (2004: 33) zenbatzaileak ezker aldean agertzeko arrazoitzat zenbatzaile horiek duten “sintagma itxura” ematen du. Arazoa, hala ere, numeralak sortzen dute, hauek, BAT eta BI salbu, sintagma itxurarik izan ez arren, kokagune horixe baitute. Hala ere, lan berriago batean (Artiagoitia 2006: 120), aurrekoan aipatzen ez den beste arrazoibide bat zabaltzen du, nire ustez, oso itxura ona duena. Honela dio: “zenbatzaile edo numeral gehienek (*bi*, *hiru*, *lau* ...) sintagma-itxurarik ez duten arren, ez da ahaztu behar batzuek euren baitan juntadura edo egitura luze samarrak onartzen dituztela (sintagmak balira legez) eta guztiak (...) banaketa osagarrian daudela neurri-sintagmekin.” Egituraren luze-laburrak ez dut uste ezer adierazten duenik, baina sintagma izateak, eta maila batean behintzat taxu bereko sintagma izateak, bai. Eta ez da bakarrik maiz juntadura bidezko osaera izaten dutela direlako numeral horiek (*hogeita bat <hogeita eta bat*). Hori baino garrantzizkoago den zerbait bada hor eta da, behin zenbaki batetik gora, juntadura ez ezik, neurri-

sintagmen tankera bete-betea hartzen dutela numeralek berek ere: *hirurogei* <*hirur hoge*i; *hiru mila*; *hiru milioi* eta holakoek *hiru litro*, *hiru dozena*, *hiru pare*, *hiru botila* eta abarren pare-parekoak ditugu. Ez da numeral hauek 'sintagma balira legez' jokatzin dutela, baizik egiazki sintagmak direla, neurri sintagmak. Beste hizkuntza batzuetan ere, gaztelaniaz esaterako, zenbaki altuak agertzen diren egiturek ('tres millones', esaterako) neurri sintagmak dira: *tres millones de estudiantes* (cf. *tres autobuses de estudiantes*). Gauzak horrela, numeral 'txikiak' ere, behar bada, numeral konplexuen gisa berean azter litezke: *hoge*i artekoetan banakoak adieraziko lirateke (*hiru* = *hiru 'banako'*) eta hortik gorakoetan bestelako unitateak (*hirurogei* = '*hiru hoge*iko'; *hirurehun* = '*hiru ehuneko*' eta abar). Honek erakusten duena da bai numeralak, bai neurri sintagmak, funtsean, kategoria berekoak direla.

Arrazoiak gorabehera, zalantzarik ez da zenbatzaile gehienak, neurri sintagma deituak barne, ezkerraldean agertzen zaizkigula. Zenbatzailetzat hartzen ditugun zenbait eskuinean agertzearen arrazoiak, beren adjektibo izaera izan liteke (*asko*, *gutxi*, *dezente*, *ugari* ...). *Bat*, berriz, determinatzailetzat ere har liteke. *Bi*-k ere, behar bada, antzeko izaera luke.

Izen zenbakarriak (*gizon*, *etxe*, *liburu*, *egun*, *litro*, *urte*, ...) zuzenean zenbatzaile numeral baten bidez zenbatu daitezke: *bi gizon*, *hamar etxe*, *laurogei urte*... Edo zenbatzaile zehaztu gabeen bidez: *gizon asko*, *etxe ugari* ...

Izen zenbakaitzen zenbatasuna ere adieraz daiteke, baina orduan, multzoko aleak zenbat diren esan beharrean, gaiaren edo masaren neurria adierazten dugu. Horretarako, alde batetik 'neurri sintagma' deitzen ditugunak izango dira (*bi litro*, *hamar zentimetro*, *bost eskukada* ...). Dirudienez, euskaraz, neurri sintagma horiek edo antzekoek eskuinaldeko egongunea ere har dezakete. Zenbatzaile partitiboek (*erdi*, *heren*, *laurden* ...) eta biderkatzaileek ere (*doble*, esaterako) jokabide horixe dute. Hauek izenaren eskuin aldean kokatzen dira.

Kokagune desberdinok aztertuko ditugu eta hurrenkera bataren eta bestearen zilegitasunaz eta bataren eta bestearen arteko desberdintasunez argi pixka bat egiten saiatuko gara. *Bi metro*, *hamar dozena*... modukoak batetik; *erdi*, *laurden*, *pixka bat*, *pila bat* ..., bestetik, eta *pare bat*, *makina bat* bezalakoak ere bai. Adjektibo sintagmetan ager daitezkeen neurri sintagmez, bigarren partean jardungo dugu.

### 1.1. Neurri sintagmak ezkerrean

Euskaraz zenbatzaile moduko determinatzaile gehienak izenaren ezkerrean kokatzen dira. Errepara diezaiegun honako adibide hauei:

- (4) a. Bost litro olio
- b. Hamar botila ardo
- c. Bi gramo azukre
- d. Hiru dozena arrautza

Sintagma hauek sintagma kuantifikatuak dira. Sintagmaren ezker aldean kokatzen da neurri sintagma, espezifikatzaile gunean, Artiagoitiaren arabera. Beste zenbait neurri sintagma, berriz, eskuinaldean ikusiko ditugu. Hauek, behar bada, izen elkartu modura edo analiza daitezke, baina, zenbaitetan behintzat, (4)koen ordain ere izan daitezke:

- (5) a. Bost [ardo botila]
- b. Bi [poxpolo kaxa]
- c. [Azukre eskukada] bat
- d. [Arrautza dozena batek] hiru ogerleko balio zuen.  
(J. Sarrionaindia, *Kolosala izango da*, 97)<sup>1</sup>

Erdibidean egongo lirateke, berriz, honako hauek:

- (6) a. Baso ardoa
- b. Dozena porrua

Azken itzuli hauek badituzte debekuak: beti mugatuak dira, esaterako. Bide aski mugatua eskaintzen dute, nolana ere.

Har ditzagun kontuan (4)ko esamoldeak. Honako hitz hurrenkera aurkitzen dugu:

- (7) [Numerala + I<sub>1</sub> + I<sub>2</sub>] (Hamar dozena arrautza, bi litro ardo ...)

Holakoetan zenbatzaileak numeral kardinala edo banakaria izan behar du:

- (8) a. {Bi / bina} kopa xanpain edan gen(it)uen.
- b. \*Botila {batzuk / asko} txanpain edan genituen.

Zatikiz osatutako sintagma ere zilegi dira, beti ere zenbateko zehatza adierazten duten neurrian:

- (9) Litro erdi (bat) olio behar da horretarako.

---

<sup>1</sup> Baina "saldutako lehen [arrautza dozenaren] diruarekin" ere aurkitzen dugu (*Berria* 2004-02-03)

Baina zenbatzaileari berari dagozkion debekuez gainera, badira I<sub>1</sub>-i eta I<sub>2</sub>-ri dagozkionak ere. Lehenbiziko izenak neurria adierazten duena izan behar du (*litro, metro, kilo* ...) edo neurritzat har daitekeena (*baso, botila, eskukada, autobuskada* ...). Stavrouren (2003: 333) arabera, egitura hauetan I<sub>1</sub> gisa ager daitezkeen izenak mota jakin batzuetakoak dira: a) izen kardinal bat izan daiteke (*dozena, ziento* modukoak); b) zenbatzaile tankerakoak (*pare* ...); c) edukiontzi adierakoak (*botila, kaxa, kopa*, ...) nahiz ‘multzo’ baliokoak (*pila, mordo, sorta* ...); d) neurria adierazten duten banakoak (*kilo, litro* ...) eta e) partitiboak (*pittin, xerra* ...). Euskaraz, sintaxiaren ikuspegitik, zerrenda horretan bi klasetako elementuak ditugu. Batzuk izen nagusiaren ezkerretara kokatzen dira. Bereziki zenbatusun adiera garbiena dutenak (*dozena, botila* eta *litro* saillekoak) dira hauek. *Makina bat* esamoldea ere ezkerzalea dugu. Ez dakit garbi zergatik. *Pare*-k bitara jokutzen du eta agian beste bakarren batek ere bai. Gainerako guztiek, izenaren eskuinaldea dute maite.

Bestalde, bi izenen artean hautapen erlazioa dago: neurri-banakotzat LITRO hautatuz gero, I<sub>2</sub> klase batekoa izango da (*ardo, ur, kafe* ...) baina ez beste batekoa (*sagar, liburu* ..., adibidez). Azken batean, zenbatzaileen eta izenaren artean dagoen hautapen erlazioaz gainera (*bost liburu, \*bost ur*), neurri sintagmaren eta izen nagusiaren artean ere bada hautapen semantikoa.

Bigarren izenak, bestalde, zenbakaitza izan behar du. Zenbakarria ere izan daiteke, baina, orduan, masa izentzat hartzen da, neurri sintagma honek laguntzen dionean. Baina, izen nagusia zenbakaitz gisa ulertzen bada ere, aditzak sintagma osoa pluraltzat hartzen du:

- (10) a. Sagardo {ugari / asko / dezente ...} edan genuen / \*genituen.  
b. Bi botila sagardo edan {ditugu / ?dugu}<sup>2</sup>

Hemen galdera asko egin daitezke. Bat, ea zergatik numeralak edo zenbatzaile zehatzak bakarrik ager daitezkeen egitura hauetan. Alegia, zergatik diren okerrak (11a eta b):


- (11) a. \*Bi botila {-ak / hauek} sagardo edan genituen.  
b. \*Botila {ugari / asko / dezente ...} sagardo edan genituen.

Neurri sintagma hauek DS-ak barik ZenbS-ak badira, kuantifikatzaile soilen pareko lirarteke: [*botila {ugari / asko / dezente}*] modukoak DS lirarteke,

<sup>2</sup> Hegoaldeko euskaldun gehienok *bi botila sagardo edan DITUGU* esaten dugu, *bi liburu erosi DITUGU* esaten dugun bezalaxe.

[*bi botilak*] eta [*bi botila hauek*] bezalaxe. Ostera, [*bi botila*], testuinguru honetan, ZenS-a izango litzateke, soil-soilik, ez DS bat.<sup>3</sup>

Baina goian aipatu dugun bi izenen arteko hautapen erlazioaren berri eman beharko litzateke. Stavrou-k (2003), egitura hauetan gertatzen diren hautapen kontu hauen berri emateko, dio neurri izena, izen erdi-lexikoa dela. Izen hau klasifikatzaile moduko bat izango litzateke, izen lexikoa hautatuko lukeena. Zenbatzaileak, berriz, klasifikatzaile sintagma hautatuko luke osagarri gisa. Horrela, gutxi gorabehera, honelako zerbait izango genuke:



Ez dirudi, hala ere, gure neurri sintagmentzat baliagarri denik proposamen hau. Hain zuzen, BAT eta ASKO-rekin, preseski, ezin dugu holakorik osatu. ASKO alhora utzita, holakoetan agertzeko debekuak baitaude, BAT bera bi izenen artean kokatzen zaigu: *baso bat ardo*. Horrenbestez, Artiagoi-tiarenaren antzeko analisi batek hobeki erantzungo lioke gure kasuari.

<sup>3</sup> Hala ere, goiko (6) bezalakoetan zenbatzailearik ez da, bai, aldiz, mugatzailea. [*Baso ardoa*] bezalakoek ez diote basokada jakin bati erreferentzia egiten, ez dira, zentzu honetan, erreferentziatzko, baizik zenbatasunezko: ez dugu zein ardoz edo zein basoz ari garen adierazten, zenbat ardo baizik.

Hain zuzen, sintagma hori era mugatua eman nahi izanez gero, bere horretan, ezina gertatzen da. Adibidez, tartean erlatibo bat dugunean, zail gertatzen da, sintagma 'atzekoz aurrera' jarri ezean, mugatzaileari leku egitea:

- (i) \*Edan duzun [*baso bat urak*] kalte egin dizu.
- Honen ordez, [*baso ura*] daukagu eskura:
- (ii) Edan duzun baso urak kalte egin dizu.

Hemen [*baso ur*] osagaitzat har daiteke eta, horrenbestez, BI-tik gorako zenbatzaileak ager daitezke, nahiz eta, orduan, ondoko adibidearen antzekoetan, berez, jakiterik ez litzatekeen izango ea [[*hiru baso ur*] dugun ala [*hiru baso ur*]] dugun:

- (iii) Edan dituzun [*hiru baso ur horiek*] kalte egin dizute.

Intuizioz ere, ikusten ahal dugu *baso bat* osagai dela eta ez *baso ardo*. (6)ko itzulien kasua besterik litzateke.

Euskaraz, gainera, bada orain arte aipatu ez dugun beste neurri sintagma bat ere, genitiboan ematen duguna:

- (13) a. Ipin ieza(zki)dazu [<sub>DS</sub> berrogei euro gasolio]  
 b. Ipin iezadazu [<sub>DS</sub> berrogei euroren gasolio]

(13a)ko neurri sintagmak ohiko taxua du (*berrogei euro gasolio/berrogei litro gasolio*). Biek ere *zenbat gasolio?* galderari erantzuten diote. Neurritzat, kasu honetan prezio-banako bat hartu dugu, *euroa*, alegia. Baina (13a)k badu parean guztiz baliokide den (13b). Hemen [berrogei euroren] osagai dela ez da inolako dudarik. Beraz, pentsatzekoa da (13a)ko [berrogei euro] ere hala dela.

Osagai-analisi honen alde etorriko litzateke sintagma hauek adjektiboekiko duten jokabidea:

- (14) a. baso handi bat ur ≠ b. \*baso bat ur handi  
 (15) a. \*baso bero bat ur ≠ b. baso bat ur bero

Adjektiboak bi lekutan ager daitezke, (14-15)en arabera. Baina eskuin muturrean doanean, bigarren izenari buruzkoa izan behar du. Horregatik, (15b) zuzena den bezala, (14b) okerra gertatzen da: ur beroaz hitz egiteak badu zentzua, baina ur handiaz hitz egiteak, testuinguru honetan, ez. Aldiz, lehenbiziko izenari buruzkoa bada adjektiboa (14a eta 15a), *baso handi* zuzena da, baina *baso bero*, testuinguru honetan, ezina da. Jakina, basoa handia izan daitekeen bezala, beroa ere izan daiteke, baina egitura hauetan, BASO ez da edalontzi materiala, neurri bat baizik, BASOKADA esaten dugunean bezala. Horregatik, neurri horren *handiaz* hitz egiteak badu zentzua baina, *\*baso(kada) bero* batez aritzeak ez du zentzurik. Kontua da, ezkerrean diren neurri sintagma hauetan ageri den izena neurri-izena izan ohi dela. Eskuinaldean doazenean, beste kontu bat da.

## 1.2. Izenaren eskuinaldean kokatzen diren zenbatzaile sintagmak

Eskuinaldean agertzen diren zenbatzaile soilez gainera (*bat, bi, asko, gutxi, batzuk, ugari, dezente ...*) izen elkartu tankera hartzen duten zenbata-sunezko egiturak ere sortzen dira euskaraz.

Gure gramatiketan maiz samar aipatu dira holakoan artean dauden diferentziak. EGLU-I-en (183. orr.) “sarritan ez dira zuzen erabiltzen” esaten zaigu. Eta aurreraxeago: “Horrela, bada, baztertu behar genituzke, “porru dozena bat”, “arraultze dozena bat” eta antzekoak ...” (185. orr.)

Zuzentasunari buruzko iritziak gorabehera, ezin uka zenbatasuna adierazteko beste modu bat dela. Hain zuzen, goiko (7) hurrenkeraren ordeztan, beste honako hauek ere zilegi dira, zenbaitetan behintzat:

- (16) a. [(Numerala) + I<sub>2</sub> + I<sub>1</sub>] (Hamar ardo botila, bi txokolatin kaxa ...)  
 b. [I<sub>2</sub> + I<sub>1</sub> + Det] (Pastel erdia, pastelaren erdia, pastelen erdia(k))

*Botila, kaxa* izen ‘lexikotzat’ hartuta, (16a)ko perpausek ez dute inolako akatsik. Kontua da ea izen horiek erdi-lexikotzat ere har ote ditzakegun. Alegia, ea bi modutara interpreta ote daitezkeen. Ezkerraldean doazenean, argi dago interpretazio bakarra ‘neurria’ dela. Baina eskuinaldean doazenean, ‘edukiontzi’ interpretazioaz gainera ‘neurri’ interpretazioa ere izan ote dezake? Neurri interpretazio hau ezinbestekoa da, *pixka bat, pila bat* modukoe-kin, baina baita *erdi, laurden* eta gainerako zatikiekin ere. Aldiz, gramatikarien iritzi zuzenak ez diren beste egiturez ere galde egin behar genuke. Adibidez, *baso, botila, eskukada* eta abarrek izen elkartu modura ematen ditugunean horixe gertatzen da. *Baso ura/baso bat ur* izan daiteke hotza, beroa, eta hola, baina ez \*kristalezkoa edo \*gorria, adibidez. *Ur basoa* edo *xanpain kopa*, bai, hauek izan daitezke Bohemiako kristalez eginak, hauts daitezke ... Kasu honetan *baso*-k edo *kopa*-k neurri izen izateari utzi eta bere balio lexiko osoa hartzen du, edukiontzi bezala interpretatzen da.

Esamolde hauen zilegitasunaz gramatiketan esan izan dena gorabehera, bi modutara uler daitezke, zenbaitetan behintzat. *Xanpain kopa garbi bat* eta *xanpain kopa goxo bat* sintagmetan *kopa* izena modu desberdinean ulertzen dugu. Batean ‘edukiontzi’ gisa, bestean neurri sintagma edo (sasi)partitibo gisa.

Edukiontzi gisako interpretazio bikoitz hau ez da gertatzen ‘neurritasuna’ berezkoa duten izenekin, *litro, metro, kilo* eta holakoekin. Hauek, beste determinazioen bat ezarri nahi ez bada behintzat,<sup>4</sup> ez dira izen nagusiaren eskuinaldean kokatzen.

<sup>4</sup> Perpaus erlatibo baten ondoren eman nahi ditugunean, adibidez, horretarako ezintasuna ez bada, zailtasuna behintzat sortzen da. Nolanahi ere, egiazko neurri diren izenekin zailago gertatzen da holakoak osatzea. Honako bi adibide hauek, esaterako, maila desberdina dutela esango nuke:

a. ??Egunero edaten dituen hiru ur litroak kalterako dira.  
 b. Egunero edaten dituen hiru ur baso horiek kalterako dira.



1.2.1. *Pare bat, pila bat, pixka bat ... bezalakoak*

Hauek ere zenbatasuna adierazteko baliabideak dira, osaera guztiz garde-na dutenak: [[<sub>1</sub> pare/pixka/pila/mordo] [<sub>num</sub> bat].

Hauen ohiko kokagunea, sintagma itxura izan arren, izen nagusiaren eskuina da:

- (17) Diru pixka bat / idi pare bat / galtza pare / harri pila bat ...

Hitz elkartu itxura guztia dute. Hala ere, neurri sintagmen interpretazio bera izan dezakete. *Harri pila*, esaterako, bi modutara interpreta liteke: batean *zenbat harri?* galderari erantzungo lioke. *Pila bat*, orduan, neurri sintagma izango da. Baina izan liteke ere harriz egindako pila bat. Hori da, adibidez, nagusitzen den interpretazioa zenbait adjektibo tartean denean:

- (18) a. Harri pila handi bat (≠ Harri handi pila bat)  
b. Bertso pila polita (a. bertso politez osatua; b. pila polita)

(18a)n *harri-pila* batez ari garela ematen du eta *pila* hori handia dela. Beste batzuetan, aldiz, adjektiboa ez dagokio neurri izenari (*pila, pare, mordo ...*) baizik izen nagusiari.

– Hauetako zenbait, bestalde, izenaren ezkerraldean ere koka daitezke beste neurri sintagmak bezala. *Pare bat* dugu arruntena. Ezkerraldean kokatzeko joera bizkaieraz nabarmentzen omen da, *OEH*-ren arabera. Hala ere, batzuetan hurrenkera desberdinak adiera desberdina dakar. *Pare bat*, ‘bi’ izan daiteke edo ez. Bi atal berdinez osatuak edo diren izen pluraletan erabiltzen dugunean, adibidez, (*galtza parea, betaurreko pare, idi pare*, eta abar) benetako izen elkartuak ditugu eta, horrenbestez, [izena + pare] modura eman beharrekoak gertatzen dira. Adibidez, *bost betaurreko pare, bost idi pare*, ez dira, besterik gabe, ‘hamar betaurreko’ edo ‘hamar idi’, ‘bost betaurreko-pare’ edo ‘bost idi-pare’ baizik. Izenak denotatzen duena berez pareka ez doanean, orduan, aski arrunta da zenbatzaile sintagma modura ematea, izenaren ezkerraldean. (19a) bezain arrunta gertatzen da (19b):

- (19) a. [masaje- igurtzialdi pare bat] hartu eta segi lanean.  
b. Pare bat harri ditut. (*Berria*, 2004-04-15)

Egitura desberdinak ditugula pentsa liteke. Izan ere, *zapata pare, idi pare, galtza pare, betaurreko pare...*, eta abarretan, izen elkartuak eman beharrean, *pare bat* ezkerrean ezartzen badugu, izen elkarketa hausteaz gainera, neurri sintagma bihurtua gelditzen da. Alegia, *zapata pare* gauza bat da eta *pare bat zapata* beste bat. Lexikalizaziorik ez denean, alegia pareka eman ohi ez diren izenekin ari garenean, ez dago inolako alderik hurrenkera bataren eta bestea- ren artean. *Pare bat harri* eta *harri pare bat* berdin-berdinak direla dirudi.

Hala ere, izenaren ezker aldean dagoenean sintagmaren zenbatasuna agerriago gelditzen dela esango nuke eta, horregatik, aditz komunztadura ere pluralean egiteko joera nabarmena dute zenbait hiztunek:

- (20) a. Pare bat zapata ikusi NITUEN vs. Zapata pare bat ikusi NUEN.  
 b. Pare bat harri bota NIZKION vs. Harri pare bat bota NION.

Egitura desberdina izan behar, hortaz:

- (21) a. [<sub>DS</sub> [<sub>QS</sub> [<sub>ZenbS</sub> pare bat] [<sub>QS</sub> [<sub>IS</sub> zapata] [<sub>Q</sub> Ø] [<sub>D</sub> Ø] ] ]  
 b. [<sub>DS</sub> [<sub>QS</sub> [<sub>IS</sub> zapata pare] [<sub>Zenb</sub> bat] ] ]

– PILA BAT-ek ohiko lekua izenaren eskuinaldea du, baina ezkererako joera hartzen ari dela dirudi, gaurko ahozko euskararen behintzat. Hona hemen luma beretik sortutako bi esamolde eta bi esateko modu:

- (22) a. Baina belar pila bat dago zelai horretan!, protesta egin zuen haurrak. Belarra besterik ez dago. (K. Santisteban, *Ipuin kontalaria*, 8)  
 b. Bai! Arraultze ustelak, kaleko borrokak eta pila bat buru apurtu egongo da! oihu egin zuen Erikek. (K. Santisteban, *Ipuin kontalaria*, 40)

– MAKINA BAT ere sail honetakoa dugu, baina alderantziz, hau beti izenaren ezker aldean kokatzen da:<sup>5</sup>

- (23) makina bat atal-zatiz adobaurik dagozan soñekoak (Añibarro, *Lora sorta espiritualala*, 98)

– Beste guztiek, izenaren eskuin aldean kokatzen dute:

- (24) a. Eskolak galdera berri mordoa dauka (K. Izagirre, *Sua nahi, Mr. Churchill?*, 8)  
 b. \*Mordo bat galdera berri

Horrenbestez, ikusten dugu zenbatasun ideiatik zenbat eta hurbilago dagoen izen baten esanahia (*dozena, ziento, pare* ...) hainbat errazago izenaren ezker aldean kokatzea neurri sintagma modura. Zenbatzaileen joera da hori, nonbait. Aitzitik, kardinaltasun garbia ez dutenek eskuinaldea dute atsegin. Ondoren hizpide izango ditugun kasuan bezala.

<sup>5</sup> Ordea, salbuespen gisa edo, alderantzizko hurrenkera ere ematen digu Juan Mateo Zabalak:

(i) ilten eben gizon makina bat (Zavala, *Alegiak*, 534)

Hala ere, rimak eskaturik dator, behar bad, hemen hurrenkera hori.

### 1.2.2. *Erdi, laurden, heren ...* zatikien jokabidea

*Erdi, laurden, heren, hamarren* eta holakoak partitiboak direla esan ohi da gramatiketan. Hauek ere, izen kategoriakoak dira eta osatzen dituzten egiturak, oraingoan ere, izen elkartutzat har litezke (*pastel erdi(a), ordu laurden(a) ...*) edo izen sintagmaren ardatzean aurki daiteke (*liburuaren erdia, ikasleen erdiak ...*). Elementu hauen izentasunaz ohartzeko aski da pentsatzea zenbatu daitezkeela eta, era mugatuan bada ere, kalifikatu ere bai:

(25) {pastel erdi bat /pastel erdi asko / (pastel) erdi desberdinak / ...} egin dituzu.

a) ERDI-ri buruz, Lafittek (1945: 80) ezartzen duen oharra esanguratsua da: “Si la partie est prise sur un tout unique, le mot fractionnaire se met au singulier (...) Si la partie est prise sur un tout multiple, le mot fractionnaire se met au pluriel”.

EGLU 1-en ere (200-201 orr.) *liburuaren erdia* eta *liburuen erdiak* bereizten dira. “Bigarren adibide honetan, liburu multzo batetik, multzo honen erdia edo irakurri duela adierazi nahi da. (...) Hala ere, ‘liburu erdiak irakurri zituen’ baldin badiogu, beste zerbait adierazi nahi dela dirudi: liburuak erdizka irakurri zituela, liburu bakoitzaren erdiraino baizik ez zela iritsi”.

Hemen bi kontu ditugu: batetik, *erdia* (sing.) vs. *erdiak* (plur.) arazoa eta, bestetik, genitiboaren agerpenari dagokiona.

– Izena zenbakaitza bada, ez dago arazo handirik, singularrean eta artikuluz horniturik joan behar du ERDI-k:

(26) a. Azukrearen erdia/ \*azukre erdi nahikoa zenuen.

Eta zenbakarria izanik, banako baten erdiaz ari bagara, orduan *erdia* nahiz *erdi* soila ere bai:

(27) {Sagarraren erdia / sagar erdia / sagar erdi} nahikoa zenuen.

Bestalde *erdi*-ren ezkerrean kokatzen den osagaiak genitiboan agertu behar du baldin eta izen hori zenbakaitza bada: hori da (26a)k erakusten diguna. {*Ardoaren, olioaren, mahatsaren ...*} *erdia* zilegi den bezala, ? *ardo erdia, olio erdia, mahats erdia* zalantzarriak behintzat badira. Pentsa dezagun zer gertatzen den *ogi* bezalako izen batekin. Hau zenbakarri nahiz zenbakaitz gisa interpreta daiteke:

(28) Ogiaren erdia sobratu da.

(28) bitara uler daiteke: a) *ogi erdia* sobratu da, ez *ogi osoa*; edo b) *neukan ogi guztiaren erdia* sobratu zait).

Ostera, honako honek interpretazio bakarra du:

(29) Ogi erdia sobratu zaigu.

Goiko (28)ri eman diogun lehenbiziko interpretazio bera izango luke, ez genuke ulertuko ogi kopuru baten erdia sobratu denik.

Hortaz:

- (30) a. [genitiboa + ERDIA] : ogiaren erdia (ogi: [± zenb] izan daiteke)  
 b. [[izen<sub>1</sub> + ERDI] + -A] : ogi erdia (ogi: [+ zenb])  
 c. [izen<sub>1</sub> + ERDI] : ogi erdi (ogi: [+ zenb])

– Izena zenbakarria bada eta plurala, *erdiak* da forma hedatuena, baina gramatiketan beste zerbait iradoki arren, *erdia* singularra ere zilegi da:

- (31) a. EAEn etxebizitzarik ez duten pertsonen erdiak atzerritik etorritakoak dira. (Asier Iturriagaetxebarria, *Berria*, 2006-01-27)  
 b. Herritarren erdiak uste du ingurumenaren egoera hobetu egin dela udalerrian eta EAEn. (Asier Iturriagaetxebarria, *Berria*, 2004-06-01)  
 c. Ume orien erdia ez da zurea, eta beragatik ondu, edo pagatu bear diozu beiak dauzkanari (J. B. Agirre, *Erakusaldiak II*, 192)

(31a)n [*pertsonen erdiak*] plurala dugu, (31b eta c)n, aldiz, singularra.

Ohikoena, nolnahi ere, Lafittek ongi zioen bezala, *erdiak* plural gisa ematekoa da.

– Izen nagusiari dagokionez, berriz, genitiboan ez ezik, inolako mugatzailezik ez kasu markarik ez duela ere ager daiteke, *EGLU*-k dioena gorabehera, baina orduan *erdiak* behar dugu, ezinbestean, multzo batez ari bagara.<sup>6</sup>

- (32) a. Egun erdietan ez duzu egurrik ekarri ere egiten (M.E. Laboa, *Astotxoaren burezurra*, 59)  
 b. Telebista horietan ia programazio erdiak erdaraz izan ahalko dira. (Agurtzane Solabarrieta, “Euskaldunek ez dute legez bermatuta euskarazko katerik”, *Berria* 2006-03-14)

<sup>6</sup> Egia da, *EGLU*-k aipatzen duen interpretazioa izan daitekeela. Honako honetan bezala:

Bajaren lehen lau egun erdietan edo lehen bi egunetan, %75a ordainduko zaie (GAO 1989-04-13)

Baina hemen [egun-erdi] izen elkartu arrunta daukagu.

– Ezkerreko osagaia erlatiboa ere izan daiteke:

- (33) Mediku batek dio (...) larrialdietara joaten diren erdiek ez luketela joan behar. (*Berria*, 2004-11-21)

Noski, erlatibo hori genitiboan ere eman daiteke:

- (34) Larialdietara joaten diren (gaixo)en erdiak

– Partitiboan ere joan daiteke, Bizkai aldeko euskaran bereziki (cf. OEH):

- (35) Arin-arin eitten dau / soloan erbiek:  
Utsik egitten deittu / punturik erdiek.  
(Manuel Lekuona, “Cantares populares”, *Anuario de Eusko Folklore*, 1930, X, 038)

b) *Laurden*-ekin ere beste horrenbeste gertatzen da, funtsean. Baina hemen, laurden batez ari bagara eta ez bi edo hiru laurdenez, singularreko komuntzadura eragiten du (36a), baina plurala ere eragin dezake (36b):

- (36) a. Batzarrean bildutakoen laurdenak, berriz, aurkako boza eman zion. (Aitziber Laskibar, (*Berria*, 2004-07-04)

b. Zerbitzuan dauden langileen laurdenak (...) euskara ikasten aritu ziren. (*Berria*, 2004-03-07)<sup>7</sup>

– LAURDEN, ERDI bezala, inolako artikulurik gabe ere erabiltzen da, neurria adierazten denean bereziki:

- (37) Ordu laurden, kilo erdi, metro erdi, litro laurden ...

Hauetan zenbatasuna adierazten da baina inolako artikulurik ez da, BAT zenbatzailerik ere ez. Hortaz, benetako zenbatzailatzat hartzeko eskubidea genuke.

c) Adibide hauek denek erakusten duten anabasa gorabehera, joera nagusiak zein diren argi dago: izena zenbakarria denean eta pluraltasuna agerian badago, joera da *erdiak* (plur.) erabiltzekoa (*ikasleen erdiak*), eta, horrenbes-

---

<sup>7</sup> Baina egunkari horretan bertan, idatzi berean, honako hau aurkitzen dugu:

(i) 2002an Justiziako langileen laurdenak euskara ikasi zuen.

Behar bada, horren azalpena izan liteke ergatiboaren agerpena. Plurala erabiliz gero, *laurdenek* beharko zukeen, baina *laurdenek* bezalako formarik nekez aurkitzen da corpu-setan. *Ereduzko prosa* izenekoan, adibidez, kazetaritzako testuetan bizpahiru adibide baka-riak aurkitu ditut, ‘hiru laurdenek’ modukoak alde batera utzita:

(ii) Australian, adibidez, haurren laurdenek dute gaixotasun hori (*Berria*, 2004-09-14)

Honen ordeztu, txukunago edo ematen duela esango nuke beste honek:

(iii) Australian haurren laurdenak du gaixotasun hori.

tez, aditz komunztadura ere pluralen egitea. LAURDEN-en kasuan, aldiz, badirudi *laurdena* (sing.) erabiltzea dela joera nagusia, izen nagusiaren pluraltasuna gorabehera.

Baina nola justifikatzen da pluralaren presentzia hori? Multzo batek –eta multzo ez denak– gehienez ere bi erdi ditu. *Ikasleen erdia* diodanean, multzo horren erdietako batez ari naiz. Baina *ikasleen erdiak* diodanean ere bai. Pentsa liteke lehenbiziko osagaiaren pluraltasunak *erdi* zenbatzailea “kutsatu” duela. Alegia [ikasleen] sintagma pluralak eta hau menderatzen duen [[ikasleen] erdiak] sintagma numero komunztadura dutela. Benetan multzo baten erdi BATEZ ari bagara, sintagmaren numeroa [+sing] izango litzateke. Baina erabilera nagusia ez da hori. Bestalde, komunztaduraren hedapen hau aditzera ere iristen da. Behin *erdiak* forma plurala dugunean, nahitaezkoa da, aditzak honekin komunztadura izan behar badu, pluralekoa izatea komunztadura hori.

Komunztadurak, hortaz, hedapen desberdina duela esan genezake.

(36) a. [[pastel(aren)] erdia] lizundurik zegoen. (cf. pastel gehiena)

[+sg]      [+sg]                      [+sg]

b. [[pastel(en) erdiak] lizundurik zeuden. (cf. pastel gehienak)

[+plur]   [+plur]                      [+plur]

c. [[hauetatik] erdia]] matrikulaturik dago.

[+plur]   [+sing]                      [+sing]

d. [[hauetatik] erdiak]] matrikulaturik daude.

[+plur]   [+/- sing]                      [+plur]

GEHIEN(A(K)) zenbatzailearen antz handia du ERDI(A(K)) honek. Azken batean, multzo edo kopuru baten parte bat adierazten ari gara: *ikastle(rik) gehienak* diogunean, ‘ikasleen multzo horretatik gehienak’ esaten ari gara, eta *ikasleen erdiak* diogunean ere, beste horrenbeste, ez ikasle multzo horretatik gehienak, baina bai erdiak. Horrenbestez, modu bertsuan analizatu beharko genituzke, nahiz eta oraingoz ez dudan analisi hori eskainiko. Egitura dela eta, kontu eman beharreko arazo bihurriena, seguru asko, komunztadurarena da. Batez ere, [ikasleen] eta [erdiak]-en artekoa.<sup>8</sup>

<sup>8</sup> Bide batez, ohar gaitezen gaztelaniaz gertatzen denaz. Izan ere, hizkuntza honetan, gure inguruko besteetan bezala, ‘la mitad de los alumnos ha(n) llegado tarde’ esaten da. Ez, euskaraz bezala, ‘\*las mitades’. Baina aditzak *ad sensum* komunztadura egin dezake edo ez. Euskaraz komunztadura berezi hori, nonbait, bi aldiz gertatzen da.

Nolanahi ere, hauetan guztietan daukagun esanahia antzekoa da: multzo bateko gehienak, multzo baten erdia, laurdena edo dena delakoa.

## 2. ADJEKTIBOEN MAILAK ETA NEURRIA

EGLU V-ean (404-405 orr.) esaten zaigun bezala, adjektiboen eta adberbioen maila adieraz daitekeen bezala (*oso pozik, nabiko gaztea ...*) desberdintasunezko konparazioa ezartzen dugunean ere, desberdintasun hori zenbatekoa den adieraz daiteke, ‘A B baino zenbat X-ago’ den esaten ahal dugu, alegia.

Izenei zenbatasuna bezala, Adjektiboei, berez, maila dagokie. Hala ere, zenbakaitz diren izenei ‘neurri sintagmen’ bidezko zenbatasuna ezar dakiekeen bezala, adjektiboei ere, nolabaiteko neurria ezar dakieke. Maila ezartzeko inolako arazorik ez da (*oso handia, biziki interesgarria, nabiko polita, txukun samarra ...*). Baina ezinezkoa gertatzen da neurri zehatza ezartzea ia adjektibo guztiekin, konparatiboak ez badira.

### 2.1. Adjektibo soilen neurria

Hizpide izan ditugu izen sintagmen inguruko neurri sintagmak. Adjektibo soilei gagozkiela, eskuarki, neurri zehatza ezartzea ez da zilegi euskaraz. Luze-zabalera adierazten dutenek bakarrik onartzen dute holakorik:

- (39) a. BI METRO {luze/zabal}
- b. \*BI URTE {zahar/gazte}
- c. \*BI KILO {astun/arin}

Konpara hauek honako beste hauekin:

- (40) a. Luze SAMARRA / DEZENTE luzea / IKARAGARRI luzea
- b. OSO zaharra / gazte SAMARRA ....
- c. BIZIKI astuna / arin SAMARRA / DEZENTE astuna ...
- d. ERABAT ezinezkoa /GUZTIZ egokia ...

Maila adierazteko arazorik ez da, (40)k erakusten duen bezala. Baina adjektibo soilak ez du onartzen neurketarik, neurketa zehatzik alegia.

Salbuespen bakarra aipatu ditugun luze-zabalerak dira (39). *Luze* eta *zabal*-ekin aski arrunta da. *Sakon* eta *altu/garai* ere multzo berekoak dira, antza:<sup>9</sup>

- (41) a. Sahara (...) bost milla kilometro zabal da ta milla ta bosteun kilometro luze (Anabitarte, *Aprikako basamortuan*, 8)
- b. Ez bakarrikan marka orretan jokatzeko prestatu, zeñek geiago altxatu ere nai nuke berriz probatu; lenagoko pisuan bertan ogei ta bi ontza altu, libre kanterak ateratzeko, gero nai deguna artu (Bilduma, *Zab* – 41)
- c. Irudia, 0,40 metro garai da. (Erkiaga, *Arr* – 195)
- d. pus bat lodi den adar bat (Duvoisin, *La* – 386)
- e. Lurra berrogei bat zentimetro sakonean ondeatu (Munita, *Gure mendi ta oianak*, 149)

Adjektibo soilei egotzi diegun debeku honek izan dezake azalpena. Pisua edo luze-zabalerak konparatzen baditugu, adibidez, bata kiloka, gramoka, arroaka edo nahi den moduan ematen da, baina beti ere neurritzat aipatutako hitz horiek hartuta, ongi dakigu pisuaz ari garela. Alegia, *liburu hori bost kilo bada* diodanean, argi da pisuaz ari naizela. Ez dago beste ulerbiderik. Pisua beti pisu. Aldiz, metroak edo zentimetroak, kanak, oinak edo nahi dena hautatuz, beti gelditzen da zehaztu gabe neurri hori luzerari ala zabalerari dago-kion, adibidez. Hortik datorke, behar bada, *luze* eta *zabal* adjektiboekin neurria zehazturik eman ahal izatea: *bost metro luze, kana erdi zabal, pus bat lodi* ... Dioguna frogatzeko, aski dugu *lodi* adjektiboari erreparatzea. Lodiera neurtzen ahal dugu metroka, adibidez, eta, orduan zilegi da *bost metro lodiko arbola* (< *arbola bost metro lodi* da) moduko bat esatea. Pertsona baten loditasuna zenbatekoa den esateko, aldiz, kiloak erabil ditzakegu, esaterako, baina orduan ez dirudi zilegi denik *lodi*-ri neurria ezartzea:

- (42) a. Arbola haren gerria hamar metro lodi zen. / Hamar metro lodiko arbola zen
- b. \*Mikel 120 kilo lodi zen./ \*120 kilo lodiko gizona (cf. 120 kilo gizona)

Beste hizkuntza batzuetan, ingelesez, esaterako, neurria onartzen duten adjektiboak ugariago dira, jakina denez. Horietako bat, tipikoa, *old* adjektiboa da, ez *young*. Euskaraz, adjektibo soilak, aipatutako luze-zabalak izan ezik, ezin dira neurtuta eman. Gaztelaniaz ere ezin da holakorik esan (Bosque 1999: 231)

<sup>9</sup> Galde egin didan hiztun gehienek, hala ere, azken kasu hauetan nahiago dituzte honako hauen antzekoak:

- (i) Jokalari honek bi metroko altuera du / ?? Jokalari hau bi metro altu da.  
 (ii) Armairu honek 50 cm-ko sakonera du / ?? Armairu hau 50 cm sakon da.



## 2.2. Konparazioetako “koska”

Adjektibo soilak izan beharrean konparatiboan ematen baditugu, neurri sintagmak agertzea zilegi gertatzen da:

- (43) a. Bi metro {luzeago / laburrago}  
 b. Bi urte {zaharrago/gazteago}  
 c. Berrehun gramo {astunago/arinago}  
 d. {Dezente/askoz} luzeagoa

Baina hauetan ez dugu ematen egiazki kasuan kasuko adjektiboaren neurria, adjektibo konparatiboak berekin duen ‘koskaren’ neurria baizik.

Bestalde, (44)koak okerrak dira. SAMAR, IKARAGARRI, OSO ... ez dira maila hitz egokiak, nonbait, konparatiboaren ‘koska’ zenbatekoa den aditzera emateko:

- (44) a. \*Luze samarragoa  
 b. \*Ikaragarri luzeagoa  
 c. \*Oso luzeagoa

Konparatiboan eta neurri sintagma hauen arteko jokia dela eta, zenbait galderari erantzun beharko litzaioke: 1) Zergatik dute jokabide desberdina adjektibo soilek eta konparatiboek? 2) *Gehiago* zenbatzaile bat bada, nolatan ager daitezke batzuetan sintagma berean bi zenbatzaile ({*BI libururu GEHIA-GO / libururu BATZUK GEHIAGO*}), beste batzuetan holakoak zilegi ez diren bitartean (\**BI libururu ASKO / ??libururu ASKO GEHIAGO*)? 3) Zein da, azken batean, sintagma hauen guztien sintaxi egitura? Dena dela, galdera horien erantzunen bila hasi baino lehen, ikus ditzagun konparatiboaren ezaugarri batzuk.

## 2.3. -AGO, -EGI eta -EN

-AGO atzizkia adjektiboan eta aditzondoei<sup>10</sup> erantzen zaie, konparazioa adierazteko. Konparazioan, A-ren ezaugarri bat ematen dugu aditzera, horretarako, B-ren ezaugarri beraren maila oinarri hartu eta koska erantsita:

- (45) A [B (den) baino] (bi metro) luzeagoa da.

<sup>10</sup> Aditzei ere erants dakieke, baina nagusiki adjektiboan eta aditzondoei erantzen zaie atzizki hau.

–EGI-rekin ere, funtsean beste horrenbeste gertatzen da: ‘*A handiegia da*’ diogunean eredutzat hartzen dugu zerbait, eta hau oinarri hartuta, A nolakoa den esaten dugu. Superlatiboarekin ere gauza bera: ‘*A da handiena*’ esaterakoan, oinarritzat hartzen den handitasun maila bat badugu eta oinarri horren gainean ezartzen dugu A-ren tamaina. Oinarri hori, –AGO konparatiboarekin ari garenean, [... BAINO] perpausaren bidez ematen dugu aditzera. –EGI atzizkiarekin ari garenean, berriz, oinarri hori ‘xede baterako behar den edo komeni den maila’ izan ohi da. Sintaxian helburuzko perpaus baten bitartez eman ohi dugu:

(46) Liburu hori handiegia da, {zorroan eramateko, haur batentzat ...}

Egitura hauek, ordea, ez dute onartzen euskaraz inolako neurketarik. Ez –EGI-k, ez superlatiboaren –EN-ek:

(47) \*Liburu hori bi kilo astunegia da zorroan eramateko.

Holako zerbait esan nahi izatekotan, –AGO konparatiboaren bidera eraman behar da perpaus hori, ‘behar den baino’ edo ‘komeni litzatekeen baino’ edo holako zerbaiten laguntzaz:

(47’) Liburu hori behar baino bi kilo astunagoa da, (zorroan eramateko).

*Astunegi* diogunean alde zuzenetik ezarritako estandar baten arabera konparazio bat ezartzen dugu, hots, behar den edo egoki den neurria gainditzeko duela esaten ari gara, estandar hori baino astunagoa dela, alegia. Kontua, azken batean, da ezin dela kasu honetan neurria ezarri.

Eta superlatiboarekin ere (–EN-ekin, alegia), ezinezkoa da neurketa egitea:

(48) Liburu hori inoiz irakurri dudana ederrena da.

Hemen oinarritzat hartzen dena ez da beste liburu jakin baten edertasuna, irakurri ditudana guztiena baizik. Nolanahi ere, ezinezkoa gertatzen da oinarriaren eta unean uneko konparagaiaren artean dagokeen ‘koska’ zenbatekoa den esatea:

(49) \*Liburu hori da denetan bi kilo astunena.

Oraingoan ere, koska hori zenbatekoa den esateko modu bakarra konparatibo gisa ematea izango litzateke:

(49’) Liburu hori beste guztiak baino bi kilo astunagoa da.

Edo, bestela, mailakatze lausoa adierazteko eskura ditugun adberbioez baliatuz:

(50) Liburu hori da, askogatik, denetan astunena.<sup>11</sup>

Hiru atzizki hauek oinarria modu desberdinez ematea eskatzen dute:

- (51) a. [<sub>Pos</sub> [<sub>KompS</sub> ... -(e)n] baino] ... -AGO  
 b. [<sub>Pos</sub> {... -(e)ntzat / -t(z)eko}] ... -EGI  
 c. {[<sub>KompS</sub> ... -(e)n] / [<sub>Pos</sub> ... {-ko / -(r)ik / -etan]}] ... -EN

Hiruretan dugu konparazioaren oinarria adierazteko aukera, baina -AGO-ren agerpenak bakarrik egingo du zilegi oinarritzat hartzen dugun perpaus edo postposizio sintagma honezaz gainera, neurri sintagma bat. Honek bakarrik hautatzen du neurri sintagma hori.

#### 2.4. Zertan dira diferente adjektibo/adberbio sintagma soilak eta -AGO konparatiboak?

Baina neurri sintagmok zergatik, *astun* adjektibo soilarekin ez, baina *astunago* adjektibo konparatiboarekin bai? Eta, oro har, edozein adjektiborekin, konparatiboan emanez gero, zilegi gertatzen da neurria adieraztea. Erantzuna bi egituren artean dagoen diferentziatik etorriko zaigu. Konparatiboak funtsezkoa du 'koskaren' ideia. (Brucart 2003). *Luzeago* konparatiboak, *luze* soilak ez bezala, koska bat badela adierazten du:

(52) A, B baino luzeagoa da.

Holakoetan, B-ren luzera hartzen dugu oinarritzat eta oinarri honen arabera, A-ren luzera zenbatekoa den esaten, bi luzeren artean 'koska' bat badela onartuz eta, nahi izanez gero, koska hori zenbatekoa den adieraziz. Zeren adierazi gabe ere utz daiteke, (52)an bezala, edo zehaztu daiteke neurri sintagma baten bidez, (53)an bezala:

(53) A, B baino bi zentimetro luzeagoa da.  
 (alegia, A-ren luzera = B-ren luzera + 2 cm).

(52)an eta (53)an gauza bera diogu, funtsean. Alde bakarra da, (52)an koska hori zenbatekoa den zehaztu gabe utzi dugula eta bestean, bi zentimetrokoa dela diogula.

<sup>11</sup> Baina hemen perpaus osoa besarkatzen duen adberbio batez baliatu behar izan dugu, ez egiazki adjektibo sintagmari datzekon neurri sintagma batez.

Gaztelaniaz ere gauza bera gertatzen da:

(i) Ese libro es el más pesado que he leído, con diferencia.

Hor dago adjektibo soilaren eta konparatiboaren arteko diferentzia. Koska neurtu edo zenbatu daiteke. Adjektibo soilek, aldiz, ez lukete ‘neurri’ argumenturik hautatuko. Konparatiboetan daukagun koskak, ostera, neurtzea eskatzen du, koska zenbatekoa den esatea. Arazo lexiko gisa ikus daiteke: *pisatu*, *neurtu*, *iraun* eta abarrek bezala, X-ago-k ere neurri sintagma bat hautatzen du:<sup>12</sup>

- (54) a. [Hiru hilabete] iraun zuen gure egonaldiak.  
b. [Hiru hilabete] geroago etorri zen Joseba.

## 2.5. Osagaien hurrenkeraz

Beste hizkuntza batzuei gagozkiela proposamen desberdinak egin izan dira sintagma hauen taxuaz (Abney (1987), Larson (1991), Brucart (2003) ..., adibidez). Sakonean egitura abstraktu samarra ere izan daiteke. Adibidez, -AGO atzizkia buru hartuta, honek bere inguruan hiru osagarri izango lituzke: adjektibo sintagma bera, neurri sintagma eta konparazio perpausa. Beste plan-teamendu bat izan liteke X-ago bezalako konparatiboak osagai bakartzat hartzea, dagozkion tasunekin. Honek orduan bi osagarri izango lituzke.


Izen sintagmetan ageri diren neurri sintagmek espezifikatzailearen lekua hartzen badute, bidezko dirudi egongune bera izatea konparatiboaren koskaren zenbatekoa ematen digun neurri sintagmak ere. Beste kontu bat da [p<sub>OS</sub> ... baino] perpaus konparatiboaren<sup>13</sup> lekua zein den jakitea. Gainerako perpaus konparatiboetan zer gertatzen den ere kontuan hartu behar da. Hau dena xehekiago aztertu bitartean, Brucartek gaztelaniarentzat proposatzen duen analisiaren antzeko bat proposa genezake, soilagoa bada ere:

- (55) Haria jostorratza baino [bost zentimetro] luzeagoa da.

Perpaus honentzat honako egitura hau proposa genezake:

<sup>12</sup> Hemen ez gara hasiko eztabaidatzen ea PISATU edo NEURTU bezalako aditz bat neurri sintagma batekin ematea ‘kalko desegokia’ den ala ez (ik. J. R. Etxebarria 2006: 140, 155-160). Edozein modutan, IRAUN aditzak holako neurri sintagma hautatzen duela ez da dudarik.

<sup>13</sup> BAINO-ren estatusa dela eta, gure hiztegieta juntagailutat hartu izan da inoiz. Juntagailuak juntadura bideratzen duten morfemak badira, kasu honetan beste zerbait daukagula ematen du. Uste dut postposiziotzat hartzea zilegi dela, perpausa gobernatzen duen postposizio bat. Horrenbestez, Po(stposizio)S(intagma) baten aurrean geundeke. Esan liteke -AGO konparatiboak hautatzen duela PoS hau, konparazioaren oinarri gisa.



Azken batean, egitura honek perpaus hauei buruz dakigunaren berri modu argian eman dezakeela dirudi: a) ardatza -AGO izango litzateke, konparatiboaren atzizkia; b) honek batetik predikatu bat izango luke osagarri [<sub>Adjs</sub> luze] eta bestetik, konparazioaren oinarria den [<sub>PoS</sub> orratza baino] postposizio sintagma. Koskaren zenbatekoa erakusten duen neurri sintagma ere -AGO-k hautatua dago; c) bestalde, -AGO maila hitzak berezkoa du [+koska] tasuna. Hau baldin bada egitura guztiaren ardatza, buruaren eta espezifikatzailearen arteko lotura ziurtatua geldituko da. Hala ere, neurri sintagma hauek osatzeko, kuantifikatzaile guztiak ez dira baliagarri. Izenen kasuan bezala, hemen ere neurri sintagma zehatzak izango ditugu aukerakoak ([Numerala + neurri izena] modukoak. Neurri izen honek (*litro, metro, kilo, ...*) adjektiboaren izaera semantikoaren (edukiera, luzera, pisua, ...) araberakoa izan behar du.

Baina oso, *izugarri, erabat, guztiz* bezalako maila-adberbioek ez dute balio:

(57) {\*Erabat / \*oso / \*izugarri} astunagoa da.

Modifikatzaile hauek ez dute adierazten 'koskadun' egitura hauetan espezifikatzaileak eman behar duen zenbatasun ideia eta, horrenbestez, ezin dira -AGO-dun adjektiboarekin konbinatu (Brucart 2003: 45).

Aldiz, beste batzuek (*asko(z), bi aldiz, are, nabarmen, dezente, zer(txo)bait, pittin bat, pixka bat ...* bezalakoek) adjektiboaren maila edo neurria, modu lausoa bada ere, adierazten bide dute, eta, horrenbestez, bat egin dezakete -AGO konparatiboarekin:

(58) Liburu hori {are/askoz/dezente/zertxobait/pittin bat/pixka bat/nabarmen ...} astunagoa da.<sup>14</sup>

<sup>14</sup> Gaztelaniazko 'sensiblemente'-ren ordezkotzat eman dut *nabarmen* maila-hitz hori. Corpusean honako adibide hau aurkitu dut, bakarra:

(i) 1986an Estatu osoan 25-29 urte bitartean ezkonduetako gizonezkoen kopurua, %51,73koa zen, nahiz eta Nafarroan datu hori nabarmen baxuagoa izan. (*Euskaldunon Egunkaria* 1992, 0009)

Adberbio edo determinatzaile hauek, lehenbizikoek ez bezala, berekin daramate mailaren edo koskaren ideia. Horregatik dira erabilgarri konparatiboekin.

(56)ko egitura gorabehera, konparazio perpausaren ohiko lekua ezkerrean du, mintzagaiaren gunean. Nolanahi ere, perpausaren kanpo aldean mugitzeko ahalmen handia du perpaus honek. ERE lokailua lagun duela, maiz. Horrek, behar bada, beste egitura bat proposatzera eramane beharko gintuzke. Gaia azterkizun uzten dut, nolana ere.

- (59) a. Harri hau [[beste guztiak baino] astunagoa] da.  
 b. Harri hau [ \_\_ astunagoa] da [beste guztiak baino].  
 c. [Txoria baino ere] ederragoa zen / Ederragoa zen [txoria baino ere].

Ohar gaituzen mugikortasun hau ez dutela beste konparatiboekin. [... BEZAIN] perpausa, adibidez, beti, dagokion adjektiboaren ezkerrean agertuko zaigu, honen ondo-ondoan.<sup>15</sup>

Neurri sintagmari dagokionez, aldiz, esan behar da beti adjektibo konparatiboaren ondo-ondoan, ezkerrean, egon behar duela, adjektibo konparatiboarekin batera osagai bakarra osatuz:

- (60) a. Haria jostorratza baino [bost cm] luzeagoa da.  
 b. \*Haria [bost cm] jostorratza baino luzeagoa da.

## 2.6. GEHIAGO konparatiboa

Adjektiboaren mailan dugun koska hori kantitateetan ere gertatzen da. GEHIAGO eta GUTXIAGO zenbatzaileetan ere –AGO atzizkia dugu, GEHI- edo GUTXI elementuari atxikia. Hemen ere GEHIAGO konparatiboak [... baino] perpausaz gainera, neurri sintagma hautatzen du:

<sup>15</sup> Errepara diezaiozun honako perpaus pare honi:

- (i) a. Harri hau [[beste edozein bezain] astuna] da.  
 b. \*Harri hau [ \_\_ astuna] da [beste edozein bezain]

Hemen morfologia arrazoiak izan daitezke (BEZAIN ezin banatuzkoa da), baita sintaxikoak ere: BEZAIN-en atzean HAIN osagaia dago, genitiboa jatorriz, eta horrenbestez, ezin da adjektiboaren ezkerreko kokagunetik atera.

Arrazoi bera izango litzateke superlatiboetan PoS bere lekuan uzteko, hau ere izenlagun gisa agertzen baita (-KO bidez, nahiz erlatibo gisa). Baina bestelako postposizioaren bat dugunean, ezintasun hori desagertzen da:

- (ii) a. Eskolako hoberena / \*Hoberena eskolako  
 b. Hau da ikasleetatik hoberena / Hau da hoberena ikasle guztietatik.


(61) Zuek baino hamar {cm, litro, gizon, liburu, isilune ...} gehiago

Neurri sintagman zenbakarri den edozein izen agertuko zaigu, neurri izena (*cm, litro, kilo...*) nahiz bestelako edozein izen (*gizon, etxe, harri ...*). Izen hori zenbakarri ez den kasuetan, zenbatze hori bideratzen duten neurri sintagmez baliatu beharra dago:

(62) a. [Bi litro ardo] gehiago

b. [Bi gizon] gehiago

(63)



Baina (62b)-n bi zenbatzaile (*bi* eta *gehiago*) elkartzen dira. Horrek azalpen garbia du baldin eta ontzat ematen bada zenbatzaile horiek ez daudela zuzenean izen berari atxikiak baizik eta alde batetik [*bi gizon*] neurri sintagma dugula eta [*gehiago*] konparatiboa bestetik.<sup>16</sup>

Bada (63) egituraren aldeko arrazoirik:

(64) a. Zuk baino [[zenbat litro ardo] gehiago] edan ditu?

b. [Zenbat litro ardo] edan ditu zuk baino gehiago?

c. \*[Zenbat litro \_\_\_ ] edan ditu [[ardo] gehiago] zuk baino?

Bestalde, (64)ren parean beste honako hau ere esan daiteke. Eta biek izan beharko lukete egitura bera:

<sup>16</sup> *Gizon gehiago* bezalako sintagma soil batek, aldiz, bestelako egitura izango luke: [<sub>QS</sub> [<sub>IS</sub> gizon ] [<sub>Q</sub> gehiago]]. Hemen ez guke neurri sintagmarik izango. Koska bai, -AGO konparatibo guztietan bezala, baina koska hori zenbatekoa den zehaztu gabe utzia egongo litzateke. Azken batean, [gizon gehiago] eta [gizon asko], biak egitura bereko lirateke. Brucart-ek (2003: 31), hala ere, beste modu batez ikusten ditu kontuak. [más días] bezalako batez ari dela, honela dio: “*Las conversaciones durarán más días de los previstos* pone de manifiesto que el SCu *días* es el representante del diferencial”. Hemen proposatzen dudana, aldiz, da [[egun bat] gehiago] eta [egun gehiago] taxu desberdineko sintagmak direla.

- (65) a. Nik baino [pastel bat/batzuk] gehiago jan du/ditu.  
 b. [Ardo pixka bat] gehiago eskatu zuen.

Hemen [pastel bat(zuk)] edo [ardo pixka bat] osagai direla dirudi. Hortaz, goian ere [[bi litro ardo] gehiago] izango da analisi zuzena. Baina osagai hau determinatzaile sintagma bat dela dirudi, mugagabea, baina DS bat. Eta honen barruan neurri sintagmatzat eman dugun [bi litro] horretan, aldiz, DS-ren itxura guztia badu ere, ZenbS bat izango genuke.

Gauzak horrela, *gehiago*-k beregan duen ‘koskaren’ balioa [bi litro ardo] sintagmak emango digu. Analisi hau zuzena izanez gero, lan honen lehenbiziko atalean aztertu ditugun neurri sintagmak eta hemengo [bi litro ardo] modukoak izaera desberdinekoak izango lirateke. Haiek QS baldin baziren, hauek, behar bada, DS ditugu. Izan ere, oraingo egitura hauetan aurrekoetan zilegi ez ziren determinatzaile/zenbatzaile batzuk ager daitezke:


- (66) a. Litro batzuk gehiago (cf. \*litro batzuk ardo).  
 b. Metro bat zabalago / kilo batzuk lodiago / asko gehiago / metro mordo bat gehiago/bi litro ardo gehiago ...

Eta, jakina, orain ere, neurri sintagmaz gainera, konparazio perpausa ere agerian eman daiteke:

- (67) Mikelek [[Jonek baino [bi litro ardo] gehiago] edaten ditu astean.

Hortaz:

- (68)



## 2.7. Azken ohar bat maila, neurria eta zenbatasuna batera adierazteaz

Konparazio egitura hauetan, mailakatuak agertzen diren adjektibo sintagma guztietan bezala, debeku handiak daude maila- eta neurri-sintagmak beste zenbatzaileekin eta mugatzaileekin konbinatu ahal izateko (EGLU V; Artiagoitia (2004, 2006)):



(69) a. \*Oso bi neska polit / ?Bi neska oso polit / \*Hainbeste oso neska polit.

b. \*Oso neska polit hau.

Aipatutako lanetan debeku hori bi osagaiak kokagune beragatik lehian ibiltzeari egozten zaio. *Hainbeste* eta *oso*, adibidez, biak 'kako' beretik ezin dira eseki. Hori litzateke sintagma horien makurra:

(70) a. Hainbeste neska polit ez dut inoiz ikusi.

b. Oso neska polita da hori.

c. \*Hainbeste oso neska polit ez dut inoiz ikusi.

Konparatiboekin ere arazo bera dugu:

(71) a. \*Zu baino hainbeste neska politago ez dut inoiz ikusi.

b. ?Miren baino neska politago asko ikusi ditut.<sup>17</sup>

Hala ere maila eta zenbatzailea bateraezin horrek kokagune bakarrarena ez ezik, beste sustrai batzuk ere izan ditzake. Izan ere, zenbatzaileekin agertzeko ez ezik, erakusleekin agertzeko ere antzeko debekuak ditugu eta kasu honetan ez dago inongo lehiaketarik kokagunea dela eta:

(72) a. \*Oso liburu eder hau ekarri didate (cf. Oso liburu ederra ekarri didate)

b. \*Zu baino ikasle saiatuago hauek aipatuko dizkizut.

c. \*Gurea bezain liburu eder hauek daude salgai. (cf. Gurea bezain liburu ederrak daude salgai.)

Kokagune falta izan liteke arrazoi bat. Izan ere, hemen hizpide ditugun neurri sintagmekin jokatzeko hasten garenean, are arazo larriagoak sortzen zaizkigu:

(73) \*Zu baino bi zentimetro neska altuagoa aurkeztu didate. (cf.)  
Aurkeztu didaten neska zu baino bi zentimetro altuagoa da.

Baina egitura hauen beste ezaugarri batzuk ere kontuan izan behar direla dirudi. Horietako bat dugu sintagma hauen zehaztasun eza. Erreferentziatzeko balioa barik zenbatusun balioa dute. Alegia, predikatu osagarriek dituzten eskabide bertsuak dituztela pentsa liteke:

<sup>17</sup> Hau beste modu honetara emanaz gero, arazorik ez:

(i) Neska polit asko ikusi ditut, Miren baino politagoak.

- (74) a. *Gero* oso liburu ederra da / \**Gero* oso liburu eder hau da  
 b. *Gure* etxea [zuena baino hamar urte zaharragoa] da./ \**Gure* etxea [zuena baino hamar urte zaharrago bat] da. /\**Gure* etxea [zuena baino hamar urte zaharrago hura] da.  
 c. *Gure* etxea ez da hain zaharra / \**Gure* etxea ez da hain zahar bat.

Kontua da holako konparazio egiturak oso ‘gustura’ aurkitzen direla predikatu osagarriaren gunean, eta hortik kanpo ezarri nahi ditugunean, arazoak ematen hasten direla. Horregatik, hain deseroso sentiarazten gaituzten (72-74)ko perpaus batzuek erabat aldatzen dute beren onargarritasun maila predikatu osagarritzko egiturara berriro eramaten ditugunean, erlatiboa tarteko. Adibidez:

- (75) a. *Gurea* bezain ederrak diren liburu hauek daude salgai.  
 b. Hain ederra den liburu hau opari egin didate.  
 c. *Zu* baino bi zentimetro altuagoak diren hamar neska aurkeztu dizkirate.

Edo aposiziora joaz:

- (76) a. *Liburu* hauek, *gurea* bezain ederrak, daude salgai.  
 b. *Hamar* neska aurkeztu dizkirate, *zu* baino bi zentimetro altuagoak.

Ildo honetatik joan beharko luke, nire ustez, *gure* azalpenak.<sup>18</sup>

### 3. ONDORIOAK

Izen sintagmaren barnean ageri diren neurri sintagmak aztertu dira lehenbizi. Osagaien hurrenkera ez da beti bat. Batetik, [[*Zenbatzailea* + *I*<sub>1</sub>] + *I*<sub>2</sub>] dugu. Honek dituen debekuak aztertu dira. Ezin da edozein zenbatzaile ezarri: numerala edo zatikia edo multiploa behar du. Lehenbiziko izenak ere multzo jakin bateko kide izan behar du (neurria, zatia, multzoa nahiz ‘edukiontzi’ balioa dutenak behar dira). Bigarren izena, berriz, zenbakaitza da.

<sup>18</sup> Bide batez, hainbeste buruhauste ematen diguten egitura hauek, gaztelaniaz ere, esaterako, taxu berezia dute. Artikulu mugatua ez dute onartzen, mugagabea baizik:

(i) *Me* presentaron unas chicas, dos cm. más altas que tú./\**Me* presentaron estas chicas muy majas.

Beste aukera bat ere bada:  $[[I_2 + I_1] + \text{zenbatzailea}]$ . Hau teoriar zilegi da neurri izenekin izan ezik. Gainerakoekin errazago onartzen dira holakoak (ur trago bat / trago bat ur). Hala ere, maiz anbiguotasuna sortzen da neurri izena ‘edukiontzi’ baliokoa denean (botila, kopa, kaxa ...). Taxu hau erakusten dute zatikiek (*erdi* eta *laurden*, bereziki). Hauen jokabide berezia aztertu dugu singular/plural arteko interpretazioari dagokionez.

Adjektibo soilekin ere erabilgarri dira neurri sintagma, baina bide honek debeku handiak ditu. Frogatu uste izan dugu luze-zabalera adierazten duten adjektiboekin bakarrik direla zilegi. Baina -AGO konparatiboarekin gauza erabat aldatzen da. Honen arrazoia -AGO atzizkiari egotzi behar zaio. Elementu hau zenbatzailetzat har daiteke eta pentsa daiteke, batetik konparazioaren oinarria hautatzen duela ( $[_{\text{pos}} \dots \text{baino}]$ ). Bestetik, adjektibo edo adberbio bat hartzen du osagarri gisa eta, [+koska] adiera duenez, koska horren neurria adierazten duen neurri sintagma ere hautatzen du. Horrenbestez, -AGO-ren mende agertuko dira adjektiboa, perpaus konparatiboa eta neurri sintagma. Neurri sintagma hau izen sintagmetan agertzen dena ez bezalako dela iradoki dugu. Dena dela, hau hobeki aztertu beharreko kontua litzateke, sintagma hauen egitura zehatza bezalaxe.

Azkenik, perpaus hauek zenbatzaileekin eta erakusleekin agertzeko dituzten zailtasunez mintzatu gara. Honetarako eskaini diren azalpenak aztertu dira baina arazoa sintagmaren egituren gertatzen den leku faltaz gainera, bestelako arrazoirik ere badela iradoki dugu, sintagma hauen zehaztasun eza-rekin lotuta. Kontu honek ere azterketa xeheagoa eskatzen du.

#### 4. BIBLIOGRAFIA

- ABNEY, Steven Paul 1987. *The English Noun Phrase in its Sentential Aspect*. Doktore tesia. Cambridge: MIT.
- ARTIAGOITIA, Xabier. 2004. “Izen Sintagmaren birziklatzea: IS-tik inguruko funtzio buruetara”. In Albizu, Pablo & B. Fernández (arg.) *Euskal gramatika XXI. Mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 11-38.
- 2006. *Euskarazko izen sintagma: arkitektura eta egitura funtzionala*. Argitaragabeko eskuizkribua. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- AZKUE, Resurrección M<sup>a</sup>. 1923-1925. *Morfología Vasca*. (2. argitalpena, 1969. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca).

- BOSQUE, Ignacio. 1999. “El sintagma adjetival. Modificadores y complementos del adjetivo. Adjetivo y participio”. In Ignacio Bosque & Violeta Demonte (arg.) *Gramática descriptiva de la lengua española*. Madrid: Espasa-Calpe, 217-310.
- BRUCART, Jose M<sup>a</sup>. 2003. “Adición, sustracción y comparación: un análisis composicional de las construcciones aditivo-sustractivas del español”. Eskuizkribua. Univ. Autónoma de Barcelona.
- EUSKALTZAINDIA 1985. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- 1999. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak-1)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- ETXEBARRIA, Jose Ramon 2006. “Neurri-izenak eta neurri-esamoldeak euskaraz”. *Euskera* 51, 123-161.
- ETXEBERRIA, Urtzi. 2005. *Quantification and Domain Restriction in Basque*. Argitaragabeko doktore tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- HUALDE, Jose Ignacio & Jon Ortiz de Urbina (2003) (arg.). *A Grammar of Basque*. Berlin-New York: Mouton de Gruyter.
- LAFITTE, Piarres 1944. *Grammaire Basque (Navarro-labourdin littéraire)*. Baiona: Livrairie “Le livre”.
- LAFON, René. 1957-58. “L’expression de la comparaison en basque”, *Bulletin de la Société Linguistique de Paris* LIII, 234-256. (Berrargitaratua: Euskaltzaindia (1999). *Vasconiana*. Iker 11. 649-666).
- LARSON, Richard K. 1991. *The projection of DP (and DegP)*. Eskuizkribua. Suny – Stony Brook.
- LÖBEL, Elisabeth. 1989. “Q as a Functional Category”. In Crhista Bhatt, Elisabeth Löbel & Claudia Schmidt (arg.). *Syntactic Phrase Structure Phenomena in Noun Phrases and Sentences*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- MICHELENA, Luis & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia. (OEH)*. Bilbo: Euskaltzaindia, Desclée de Brouwer, Mensajero.
- STAVROU, Melita. 2003. “Semi-lexical nouns, classifiers, and the interpretation(s) of the pseudopartitive constructions”. In Coene, Martine & Yves D’hulst (arg.) *From NP to DP*. Amsterdam: John Benjamins Publishing Company, Vol I, 329-353.

Corpusak:

*Orotariko Euskal Hiztegiaren Testu Corpora.* Bilbo: Euskaltzaindia.

*Euskaltzaindiaren XX. Mendeko euskararen corpus estatistikoa*  
([www.euskaracorpora.net](http://www.euskaracorpora.net))

*Ereduzko prosa gaur.* ([www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/](http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/))